

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2021eko urtarrilaren 23tik 29rako astea.**

Euskal Herriko Aldizkari Ofiziala 2021/01/23

- **XEDAPEN OROKORRAK. – Lehendakaritza.** - 4/2021 DEKRETUA, urtarrilaren 22koa, lehendakariarena, zeinaren bidez hirugarren aldiz aldatzen baita honako dekretu hau: 44/2020 Dekretua, abenduaren 10ekoa, lehendakariarena, zeinaren bidez prebentzio-neurri espezifikoak testu bakar batean bildu eta eguneratuko diren, alarma-egoeraren adierazpenaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko. **365 xedapena - 4 or.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

Estatuko Aldizkari Ofiziala 2021/01/27

- Ebazpena, 2021eko urtarrilaren 14koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen den Banku-sektoreko hitzarmen kolektiboaren aurreraeragina luzatzeko akordioa. **2021-1163 xedapena - 2 or.**
- Ebazpena, 2021eko urtarrilaren 14koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen den Ikus-entzunezko lanen ekoizleen eta bertan lan egiten duten aktoreen hitzarmen kolektiboari buruzko akordio partziala. **2021-1171 xedapena - 3 or.**
- Ebazpena, 2021eko urtarrilaren 14koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen den Kanpoko prebentzio-zerbitzuen hitzarmen kolektiboari akordio partziala. **2021-1172 xedapena - 6 or.**

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2021/01/26

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. – Premiazko neurriak.** – Akats zuzenketa, honako errege lege-dekretu honena: 36/2020 Errege Lege-dekretua, abenduaren 30ekoa, premiazko neurriak onesten dituen Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko. **2021-1064 xedapena - 1 or.**

2021/01/27

• ESTATUKO BURUZAGITZA.

- **Premiazko neurriak.** - 2/2021 Errege Lege-dekretua, urtarrilaren 26koa, enplegua babesteko neurri sozialak indartzeko eta finkatzeko. **2021-1130 xedapena- 42 or.**
- **Itsas arrantza.** - 42/2021 Errege Dekretua, urtarrilaren 26koa, Mediterraneoko arrantza-toki nazionalean hondoko arraste aparailuen bidezko arrantza arautzen duen irailaren 10eko 1440/1999 Errege Dekretua aldatzen duena. **2021-1132 xedapena - 3 or.**

- **INKLUSIOAREN, GIZARTE SEGURANTZAREN ETA MIGRAZIOEN MINISTERIOA.**
– **Gizarte Segurantza. Klase pasiboak.** - 46/2021 Errege Dekretua, urtarrilaren 26koa, 2021eko ekitaldirako, Gizarte Segurantzako pentsioen, klase pasiboen pentsioen eta beste prestazio sozial publiko batzuen goratzeari buruzkoa. **2021-1135 xedapena - 25 or.**

2021/01/28

- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA MEMORIA DEMOKRATIKOAREN MINISTERIOA.** – **Segurtasun informatikoa.** - 43/2021 Errege Dekretua, urtarrilaren 26koa, informatika-sareen eta –sistemen segurtasunari buruzko irailaren 7ko 12/2018 Errege Lege-dekretua garatzen duena **Disposición 2021-1192 - 28 págs.**
- **INKLUSIOAREN, GIZARTE SEGURANTZAREN ETA MIGRAZIOEN MINISTERIOA.**
Gizarte Segurantza. Kontabilitatea. - ISM/48/2021 Agindua, urtarrilaren 25ekoa, justifikatu beharreko ordainketa-aginduak emateko arauak ezartzen dituena. **Disposición 2021-1194 - 4 págs.**

2021/01/29

- **BARNE MINISTERIOA.** – **Mugak.** - INT/62/2021 Agindua, urtarrilaren 28koa, honako agindu hauek aldatzen dituena: INT/657/2020 Agindua, uztailaren 17koa, hirugarren herrialdeetatik Europar Batasunera eta Schengen herrialde elkartuetara ezinbestekoak ez diren bidaien aldi baterako murrizketa aplikatzeko irizpideak aldatzen dituena, ordena publikoko eta osasun publikoko arrazoiengatik, COVID-19ak eragindako osasun krisia dela-eta; eta INT/1236/2020 Agindua, abenduaren 22koa, Gibraltarreko eremuko kontrol postutik Schengen eremura lurrez sartzea aldi baterako mugatzeko irizpideak ezartzen dituena, osasun publikoko arrazoiengatik, COVID-19ak eragindako osasun krisiaren ondorioz. **2021-1265 xedapena - 2 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2021/01/25

- **XEDAPEN OROKORRAK. – LEHENDAKARITZA.** - HUTS-ZUZENKETA, honako dekretu honena: 48/2020 Dekretua, abenduaren 28koa, lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen dekretua aldatzen duena. **366 xedapena - 1 or.**

2021/01/26

- **OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA.** - ERABAKIA, 2020ko abenduaren 18koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Ente Publikoaren Administrazio Kontseiluarena, 2021eko ekitaldian zehar zerbitzu sanitarioengatik eta irakaskuntzako zerbitzuengatik ordaindu beharra duten hirugarrenei kobratuko zaizkien tarifak onartzen dituen. **380 xedapena - 3 or.**

2021/01/28

- **EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA. -**
 - EBAZPENA, 2020ko abenduaren 16koa, Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendariarena, kontsumoak indibidualizatzeko sistemak instalatzearen errentagarritasun ekonomikoari eta jakinarazteari buruzko irizpideak ematen dituen. **450 xedapena - 2 or.**
 - EBAZPENA, 2021eko urtarrilaren 21ekoa, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoan hazitarako patata ekoizteari buruzko abenduaren 3ko 177/2018 Dekretuaren I. eranskina aldatzen duena. **451 xedapena - 3 or.**

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

2021/01/29

- **FORU AGINDUAK (OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA).** - Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren urtarrilaren 22ko 36/2021 Foru Agindua, zeinaren bidez onesten baita 184 eredia, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarena, sozietateen gaineko zergarena eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergarena. Errentak eratzikitzeke araubidean dauden erakundeak. Urteko informazio

aitorpena, bai eta ordenagailuz zuzenean irakur daitezkeen euskarrien diseinu fisiko eta logikoak ere. **259 xedapena - 52 or.**

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2021/01/26

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** - Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 55/2021 FORU AGINDUA, urtarrilaren 11koa, zeinen bidez onartzen baitira zerga hauek kudeatzeko aplikatu beharreko batez besteko salmenta-prezioak: Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga, eta Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Berezia. **1356 or.**

2021/01/27

- **LANA ETA JUSTIZIA SAILA.** - Erabakia Lan eta Enplegu Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Bizkaiko lurralde ordezkariarena. Honen bidez ebatzen da Bizkaiko Butano Banatzaileen Hitzarmen Kolektiboa erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea (hitzarmen kodea 48000375011981). **22 xedapena - 16 or.**

2021/01/28

- Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 116/2021 FORU AGINDUA, urtarrilaren 19koa, martxoaren 31ko 632/2017 Foru Agindua aldatzen duena. Foru Agindu horren bidez, 289 eredu onesten da, elkarri eman beharreko laguntzaren esparruan finantza-kontuei buruz urtero egin beharreko aitortpen informatiboa egiteko dena. **50 xedapena - 5 págs.**
- Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 117/2021 FORU AGINDUA, urtarrilaren 19koa. Honen bidez, aldatu egiten da Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren abenduaren 23ko 2282/2016 Foru Agindua, zeinaren bidez finantza-aktiboekin eta beste balore higigarri batzuekin egindako eragiketen urteko aitortpena egiteko 198 eredu onesten baita.

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2021/01/26

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** - 22/2021 Foru Agindua, urtarrilaren 19koa, zeinaren bidez aldatzen baita 126/2020 Foru Agindua, martxoaren 18koa, Batasunaren barruko eragiketen aitortpen laburtzaileari buruzko 349 eredu eta hura aurkezteko diseinu fisiko-logikoak, tokia, modua eta epea onartzen dituen. **314 xedapena - 15 or.**

2021/01/28

• **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.**

- 18/2021 Foru Agindua, urtarrilaren 18koa, zeinaren bidez aldatzen baita abenduaren 29ko 530/2020 Foru Agindua, «Elkar laguntzaren esparruan finantza kontuei buruz informatzeko urteko aitortpena» izena duen 289 eredua onesten duena. **281 xedapena – 7 or.**
- 19/2021 Foru Agindua, urtarrilaren 18koa, zeinaren bidez aldatzen baita martxoaren 5eko 91/2020 Foru Agindua, balore, aseguru eta errenten urteko aitortpen informatiboa aurkezteko 189 eredua onesten duena. **280 xedapena – 2 or.**

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

2021/01/29

- Kontseiluaren 2021/89 (EB) Gomendioa, 2021eko urtarrilaren 28koa, 2020/912 (EB) Gomendioa aldatzen duena, EBra funtsezkoak ez diren bidaiak aldi baterako murrizteari eta murrizketa hori kentzeari buruzkoa. **32021 xedapena - 3 or.**

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - 48009 BILBAO